

ZAKILIXUT

© Olariagak



ganbaratik

♦ Maki Uriarte

Semaforoan

Arriaga plazan egitekoa zen ekitaldi bateko informazioa jasotzera Bilbo Zaharreraino autoz hurbildu, eta bertan sentitu nuen kanpaina bere intentsitate osoan. Ezkerrera begiratuta EAJren propaganda mahaia eta IUren hautagaiak; eskuinetik EAren megafonia heltzen zitzaidan garbi. Hogei metro urrunago PSOeren autobus beilegia. Semaforoa noiz zabalduko ote aurrera so egin nuenean, EA, EAJ eta Gorordoren autoarekin bolumen zolian lehiatzen zen PPren kamioi-karabana aditu nuen. *Over booking.*

PSE-EEkoek autobusa bertan utzi eta ekitaldia Plaza Barrian burutzea deliberatu zuten. Baina mitinlariak ez ziren inon ageri. Irratietako lankideak urduri. Ordu bietan zuzenean sartu behar dut eta hona ez da inor heltzen. Ordu bata eta hogeia, ordu bata eta hogeita bost, ordu bat eta erdiak. Beno, ba eska diezaizkiogun deklarazioak dagoen baten bati eta hor konpon. Azkenean gazte bat animatu da zerbait esaten. Kazetariak alde egiten hasita daudenean hara non datorren pankarta ibiltari bat. «Euskal Herria askatu» bera bakarrik doa, atzean doazen pertsonen eskuak baino ez dira ageri eta. Txistu batean antolatzaileek beste pankarta bat atera, «bakea» dioena, eta atzeko estaltzen salatzen dira. Isilik, bi pankartak Barrio Sesamoko jokoetan sartzen dira: eskuin-ezker, gora-behera... bata nora bestea hara. Presoak aipatu eta supituki bolumen osoan pizten da megafonia. Azkenean bakoitza bere etxera, eta kazetariak hautagaien zain.

Hausnartzekoa ezezik atsedean eguna nahi nuen gaurkoa, baina ezin. Abstentzioaren aldeko kanpaina egin nahi dutenak Arriaga plazan bilduko dira. Espero dut behintzat semaforoan ez gelditzea ostera ere. ▽

Eszenatokitik kanpo ere artista

■ Narruzko Zezen taldeko neska-mutilek antolatzen dute Eibarko Antzerkialdia

ESPAINIATIK zein beste hainbat naziotatik etorritako artistekin barre edo negar egiteko aukera izango da Eibarren hilabete osoan zehar, baita beste edozein jaialditan baino Euskal Herriko talde gehiago ikustekoa ere. Baina hain ezagunak diren Eibarko Antzerki Jardunaldiak antolatzearen truke oraindik ez duela inork pezetak ere jaso gutxi batzuek bakarrik dakite.

Ikusleak taula gainean gertatzen dena bakarrik txalotzen duen arren, arrazoi ugari dago Narruzko Zezen taldearen lana gorapaitzeko. Izan ere, Juan Ortega eta Chema Cornadoren zuzendaritzapean, irakaskuntza ertaineko jendea da eszenatokitik kanpo gertatzen diren kontu guztien arduraduna.

Argi dago dena prestatzea ez dela batere erraza izaten, gauzarik ximpleenak lan ordu piloak kentzen baitu. Egitaraua aukeratzeko, adibidez, obra ugari ikusi behar izaten dute eta penintsula osoan barrena ibiltzen dira Narruzko Zezeneko neska-mutirik. Joan-etorri horien ondorioz, estrenaldi asko aurkeztu izan dute Unibertsitate Laboraleko aretoan.

«Ez dugu dietarik kobratzen eta kilometroak zenbatu beharrean, gasolina txekuek hartzen ditugu», aitortu digu Joan Ortega zuzendariak. Baina antzerki-lan bat gustukoa izatea ez dute nahikoa, edozein muntaia ezin daiteke Laboraleko eszenatoki txikian sartu, eta taldeek eskatutako *cachet*-a negoziatzeko telefono dei asko egin behar izaten dute.

Aurten 21 antzerki-lan eta lau filme aurkeztuko dituzte, guztia hamabi milioi pezetako aurrekontuarekin. «Argi dago lan bolondresa egongo ez balitz ezinezkoa izango litzatekeela halako zerbait antolatzea, ezta diru kopuru bikoitzarekin ere. Bestalde, Unibertsitateak musutruk lagatzen dizkigu azpiegitura eta zerbitzu guztiak, eta hori ere ordaindu egin behar izango bagenu...».

Baina hala eta guztiz, Marokotik etorritako pitxi-saltzaileen moduak ibiltzen dira, gora eta behera, erakundeak eta



Hogeita bat antzerki-lan eta lau filme aurkeztuko dituzte Eibarren, hamabi milioi pezetako aurrekontuarekin. Gazteen lan bolondresa tartean ez balitz ezinezkoa litzateke jardunaldiak antolatzea.

taldeak konbenzitzen; lehenek diru gehiago eman dezaten eta besteek gutxiago eska dezaten. Hori lortu ondoren, programak, txartelak, kartelak, eta mila gauza antolatzen dituzte. Kartela, esate baterako, bi taldekide egin dute, gauza guztietarako sasi-aditu bat dago eta.

Inprentatik ateratako txartelak markatu eta banatzeaz arduratzen da talde bat. Ikusle bakoitzari bere jarlekuan esertzen laguntzen dio beste lantalde batek. Eta obra amaituta, txaloen ondoren, lanari ekin behar izaten diote berriz ere Narruzko Zezenekoek. Batzuk kartelak ipintzera joaten dira, eta besteek, aldiz, antzeztaldee eszenatokitik trasteak altxatzen eta kamioietan gordetzen laguntzen diete gauero.

Eragina azterketen emaitzetan

Oheratzeko ordua ez da gurasoen gustukoa izaten, eta askotan liskarra izaten da artista gazte hauen etxean. «Egia da nahiago dutela gu hemen ibiltzea kalean ibiltzea baino, baina azken aste hauetan hemen bazkaldu behar izan dugu asteburuero, eta arratsaldero etorri gara lau bat orduz gauza bat edo bestea egitera. Argi dago aktibitate honek baduela era-

gina ikasketetan», aitortu dute serio.

Dena den, guztiztat oso esperientzia polita izaten da, «antzerkigintzaren sekretu eta ofizio guztiak egiteko aukera izatea baita ikasteko modurik onena», esate baterako, zeregin horietan ibili ziren bere garaian Iñaki Miramon eta Imanol Arias, eta hori akuilua da gazteontzat.

Mari Jose Telleria

EIBAR

ITSAS MENDI
karabanak

Konzesionario Ofiziala

Autokarabanak: HYMER, PILOTE RIMOR, BENIMAR, ESPERIA.

Karabanak: KNAUS, ERIBA, ROLLER.

Atoiak: COMANCHE, JAMET.

Garantizaturia salmenta ondoko zerbitzua

96 modelo berrien erakusketa

Autokarabanak 3.500.000tik

(Irekita larunbat goiz eta arratsaldetan)

☎ (943) 59 32 90 - ANDOAIN